

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Caixabank Taldeak hitzarmena sinatu dute, entitatearen 8 etxebizitza gizarte-alokatzerako gordetzeko

Buildingcenter sozietateak eman ditu etxebizitzak eta NASUVINSA enpresa publikoak kudeatuko ditu, Alokairuen Poltsa programaren bitartez

Astelehena, 2018.eko urtarrilak 15

Nafarroako Gobernuak arazoizko alokairurako 8 etxebizitza jasoko ditu CAIXABANK SA taldeko kide den BUILDINGCENTER SAU erakundearen eskutik; etxebizitza horietako zazpi Iruñan eta Iruñerrian daude kokatuak, eta bat Tuteran.

Hala jasotzen da gaur goizean bertan Nafarroako hiriburuan sinatu den hitzarmenean; sinatzean izan dira Gizarte Eskubideetako lehendakariordea, MASUVINSA (Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.) sozietate publikoko presidente den Miguel Laparra jauna, Nafarroako CAIXABANKeko Lurralde Zuzendari Ana María Díez Fontana andrea eta BUILDINGCENTER SAUko Harreman Institutuzionalerako Zuzendari Luis Costa Pages jauna.

Hitzarmenaren arabera, sei urtez kudeatuko ditu NASUVINSAK emandako etxebizitzak, etxebizitza-bazterketa arriskuan dauden pertsonen beharrei erantzuteko, zeinei bost urtetako alokairu-kontratua eskainiko zaien. NASUVINSAK hautatuko ditu errentariak, babestutako etxebizitzaren Eskatzaileen zentsuaren bitartez, eta egun dauden gizarte-programen baitan. Etxebizitzak Alokairuen Poltsara gehituko direnez, hilabeteko errentaren %90era arteko diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte familia errentariak

BUILDINGCENTER SAUk etxebizitzak prestatu ditu azken hilabeteetan, okupatzailerik eta errentaririk gabe emango dituenak, eta berehala bizitzan hasteko baldintzetan, horniduren alta emateak barne. NASUVINSAK hartuko du bere gain efizientzia energetikoaren ziurtagiria egiteko ardura, etxebizitzak edukiko ez balu, eta baita etxebizitzaren mantentze-gastu arrunten ardura eta errentariei dagokien errenta kobratzearen ardura ere.

Miguel Laparra Bigarren lehendakariordea pozik agertu da



Gizarte Eskubideetako eta Caixabank-eko lantaldeak, Laparra lehendakariordearekin eta Ana Díez Fontanarekin.

hitzarmena sinatu izanaz eta Nafarroako Gobernuak utzitako etxebizitza-kopurua handiagotzeko duen interesa adierazi du. Gainera, beste finantza-entitate batzuek CAIXABANK SA eredu hartzeko duen desira adierazi du, parte bientzako estrategia irabazle gisa jo duen programaren baitan, Nafarroako gizarte osoarentzako onuragarri den era berean.

Halaber, CAIXABANK SArek gestioak eskertu ditu, Hipoteken Bitartekotzarako Bulegora ebatziak izateko iristen diren hipoteken ez ordaintze kasuetan irtenbide adostu eta ez traumatikoak aurkitzearen. Aipatu bulegoa berak zuzentzen duen Eskubide Sozialen Departamentuaren mende dago.

CAIXABANK SArek eskutik, Nafarroako Gobernuarekin kolaboratzeko borondatea erakutsi du Ana María Díez Fontana andreak, nafarren garapen inklusibo eta integralaren alde egingo duten eremu guztietan, gizarte justu eta kohesionatuago bat lortzeko helburu bateratua erdiesteko. Gainera, CAIXABANK SAK gizarte nafarrarekin duen konpromiso berezia gogoratu du, bai bere enpresa-ehunarekin, eta bai bere gizarte-ehunarekin.

Alokairuen Poltsa

Alokairuen Poltsarako urtero 100 etxebizitza hautematea du helburu Nafarroako Gobernuak, 2017a urte positibotzat jo ondoren, 554 etxebizitzarekin; 2019ko udaberrirako 700 etxebizitzatako parkea kudeatzea da asmoa.

2018an berriz errepikatuko da beren etxebizitzak Alokairuen Poltsarako eskaintzen dituzten jabeentzako diru-laguntzen deialdia, errentaren hileko hiru kuotei dagokiona (945 eta 1.600 euro artean). Jabe horiek, gainera, lortutako etekinaren %40ko zerga-murrizketaren onura lortu ahal izango dute. Neurri horiek osatzen dute Alokairuen Poltsa programa, kobratzeen garantiarekin eta etxebizitza bueltan egoera onean jasotzearen garantiarekin batera. Gainera, "nazio-lurralde osoko etxebizitzen mobilizazio-programa osoena eta anbizio handikoena ere bada".